

Iritzi publikoa, iritzi publikatua eta publikoaren iritzia: hedabideen eragina euskal politikagintzan

Josu Amezaga, Edorta Arana, Ander Iturriotz, Rosa Martín
EHUko irakasleak

Zer da “iritzi publikoa”? Politikagintzan oso kontzeptu erabilia izan arren, ez du beti esangura bera izaten. Batzuetan gizabanakoen iritzien batuketa gisa agertzen da, beste batzuetan hedabideetan agertutako iritzietara mugatzen delarik. Alabaina, hedabideek gizabanakoen iritzia islatzen dituzte, ala berenak gehienbat? Edota gizarteko aktoreek plazaratzen dituztenak? Galdera hauei erantzuteko, Hego Euskal Herrian irakurtzen diren egunkarien eta ikusten diren telebisten edukiaren analisi zabal batez eta iritzi-inkesta handi batez baliatu gara. Biotan “iritzi publikoak” sarritan baldintzatzen omen dituen gai bi aztertu ditugu: ETA eta Espainiako Gobernuaren arteko negoziazio politikoa, batetik, eta euskarari buruzko hizkuntz-politika, bestetik.

What is “public opinion”? Being a very useful term in politics, it is not clear that it has a unique meaning. Public opinion seems to represent individual opinions. At the same time, when we talk about public opinion we are often repeating opinions published by mass media. But do media reflect the real opinion of people, or only their own opinion? Or even opinions expressed in public by different social actors? In order to answer these questions we have based our research on an exhaustive content analysis of TV and newspapers in South Basque Country and on a large opinion-survey, about two items that often seem to be conditioned by “public opinion”: the political negotiation between ETA and the Spanish Government, and language policy on the Basque Language.

Demokrazia burgesa deituriko sisteman, berebiziko garrantzia du iritzi publikoak –hala ere, ez dezagun geure burua engaina, beste eragile batzuek ere garrantzi handia baitute sistema honetan: botere faktikoek, alderdien interesek, e.a.–. Iritzi publikoa lagun nahi izaten dute politikariek, eta hari begira egiten dute zenbait gauza. Hauteskunde-kanpainetan bereziki, iritzi publikoak dioenari so egon ohi dira agintariak, jendaurrean burutzen dituzten jokaerez edo hitz ematen dituzten neurriez hura beren alde eduki nahirik. Boterea daukatenak, boterea eskuratu nahi dutenak, edota haren aurka altxatzen direnak, sarritan, iritzi publikoa behatu eta ezagutu ez ezik, berau sortzen ere ahalgintzen dira, bakoitzak dituen baliabideen bitartez: hedabideak, komunikabideak, mezuak, arrazoiak, e.a.

Soziologiari kasu eginez gero, errealitatean ondorioak eragiten dituzten gauzak errealak dira, izan. Beraz, iritzi publikoa zerbait erreala dela esan behar dugu, prozesu politikoetan bederen ondorio errealak eragiten baititu. Baina, zer da iritzi publikoa?

Euskal Hiztegi Entziklopedikoak honela definitzen du “iritzi publikoa”: «Herriaren gehiengoak interes orokorreko arazoei buruz duen ikuspuntua. Ikuspuntu hori duten pertsonen multzoa». Definizio honek oso ondo jasotzen du iritzi publikoaz batzuetan eman nahi den irudia. Izan ere, norbaitek “iritzi publikoak eskatuta” zerbait egiten duenean, adiera hori (“herriaren borondatea”) erabiltzen baitu, politikarien kasuan bezala. Baina definizio honek muga handi bat dauka: nola jakin daiteke “herriaren gehiengoak duen ikuspuntua”? Herriari galdetu, oso gutxitan galdetzen zaio politikagintzatik. Erreferendumetan, oso galdera konkretuak egiten zaizkio, gehienetan gaine-

ra tranparekin: «Estatutu hau onartzen duzu?» bezalako galderak ez dira oso zuzenak, “hau edo ezer ez” dikotomia faltura mugatzen baitituzte aukera politikoak. Zuzenagoak lirateke «Nolako egoera nahi zenuke Euskal Herriarentzat?» erako galderak. Herriaren nahia jakiteko beste bide bat hauteskundeak izaten dira, baina hauek ere oso muga handiak dauzkate. Jendeak alderdi bati edo besteari boto emateak ez du esan nahi alderdi horrek dituen ikuspuntu guztiekin bat egiten duenik. Horixe ikusi da hemen NATOREN erreferendumean (alderdi nagusien iritziaren aurkako botoa nagusitu baita). Bestalde, erraza da behin botoak eskuratuta iritziak eta jokabideak aldatzea, lau urtetarako lizentzia norberaren esku dagoelakoan. Badago beste bide bat “herriaren nahia” jakiteko, inkesten bidea. Gero eta erabiliagoa den bide hau, ordea, garestia da, eta ezin da une oro eta politikagintzan planteatzen diren gai ororen inguruan erabili. Emaitzak, gainera, inkesta enkargatzen duenak gorde ohi ditu kasu askotan, herriaren nahiari buruzko ezagutza oso gutxiren esku geratzen delarik.

Beraz, herriaren nahia ondo ezagutzea oso zaila da. Eta hala ere, politikariek ez ezik, jende arruntak ere nahi hori ezagutu uste izaten du. Arazo publikoei buruzko inkestetan «Zure iritzi, zer uste du jende gehienak X arazoari buruz?» erako galderak egitean, gehienek zerbait erantzuten dute, gutxi izanik «Batek daki!» diotenak. Horrek zera erakusten du, jendeak bere inguruko iritziei buruzko irudia osatuta duela, nola edo hala. Eta seguru asko, irudi horren arabera jokatzeko du zenbait unetan. Politikagintzan irudi horri “iritzi publiko” deritzo, eta batzuetan eragile bihurtzen da; hain zuzen, jendearen edo politikarien jokabidea baldintzatzen duenean.

1. Erregearen jantzi berria

Grimm anaiek jasotako *Erregearen jantzi berria* ipuinak erakusten du ederto nola osa daitekeen besteen iritziei buruzko irudia, nolako eragina izan dezakeen norberaren jokaeran, bai eta nola iraul daitekeen irudi hori, oinarri faltsuak dituenean. Erregeak jantzi eder bat egitea agindu omen zien bere jostunei. Hauek, ordea, behar bezala lan egin ez eta, Erregea jantziaren bila etortzean ez zeukaten oraindik ezer. Orduan zera otu zitzairen esatea: «Oihal majiko batez eginiko jantzia duzu hau, Jaun Txit Goren Hori. Majikoa duzu, jende adimentsuak soilik ikus baitezake. Ergelek eta ezjakinek ez dute oihal hau ikusten. Har beza berorrek, bada, gure jantzi ederra». Erregeak, noski, ezer ez zuen ikusten ezer ez zegoen tokian, baina jendaurrean bere ezjakina edota ergelkeria onartu ezinik, jantzi haren edertasunak gorapatzen hasi zen. Eta berdin egin zuten inguruko guztiek, jantziaren ederra mirestuz eta ezer ez ikusteak sortarazten zien lotsa disimulatuz. Erregea kalera irten zenean ere, herri osoak mirestu zuen jantzia, inork ez baitzuen nahi besteek ergeltzat hartzerik. Mutiko bat zegoen, ordea, oraindik nagusien konplexu-maila horretara iritsi gabea, eta hark deskubritu zuen gezurra: «Biluzik doa! Erregea biluzik doa!» hasi zen oihuka eta barreka. Horrela geratu zen agerian jantzi majikorik ez zela, eta jendaurrean lotsagarri geratzeko beldurrak eragindako disimulu masiboa baino ez zela hura.

Ipuin honek zera erakusten digu: gure ikuspuntuak inguruan ditugun

pertsonen ikuspuntuen ezberdinak direnean, isolatuta ez geratzearren, isiltzera jotzen dugu. Itxuraz besteen ikuspuntuak diren horiek, horrela, are ageriagoan geratzen dira, iritzi ezberdinak isiltzen diren neurrian; nagusitasun-itxura, hartara, gero eta handiago bihurtzen da. Eta horrela, prozesu kiribil batean, ikuspuntu bat besteei nagusitzen zaie. Hipotesi honetatik abiatuta Isiltasunaren Kiribilaren Teoria izenez ezagutzen dena landu zuen Elisabeth Noelle-Neumann ikerlari alemanak.¹

2. Isiltasunaren Kiribila

Soziologiako eta Gizarte Psikologiako zenbait oinarri ditu teoria honek. Gizabanakoa, dio teoriak, izaki soziala da, eta horregatik isolatua izatearen beldur da. Era berean, gizarteak isolamenduarekin mehatxatzen du desbideratutako gizakia. Honen aurrean gizabanakoak bere inguruan agertzen diren iritzi eta jokaerak behatu egiten ditu, “besteek” zer pentsatzen duten eta nola jokatzeko duten ikusteko. Behaketa honen ondorioz, norberaren ikuspuntuak “besteekin” bat badatoz gizakiak ez du arazo handirik izaten beroriek jendaurrean azaltzeko. Baina bere ikuspuntuak eta besteen artean nagusitzat jotzen direnak bat ez badatoz, orduan ikuspuntu propioak isiltzera jotzen du, isolatuta ez geratzearren. Horrela, ustezko gehiengoaren iritziekiko disidenteak diren iritziak isiltzean, lehenengoak are nagusiagotzen dira jendaurrean, gehiengotasun-irudia berrihurtuz, eta isiltasunaren kiribilaren prozesua areagotuz. Horela, iritzi bat besteei nagusitzen zaie.

1. Noelle-Neumann, E. (1991): “The Theory of Public Opinion: The Concept of the Spiral of Silence”, *Communication Yearbook*, 14. liburukia, 256-287 (Euskarazko itzulpena ere badago: *Iritzi Publikoaren Teoria: Isiltasunaren Espirala*. Argitaratu gabeko mimeoa).

Teoria honen arabera, iritzia sortzen duen gaiak zerikusi handia dauka isolamenduaren mehatxuarekin. Gai batzuetan taldearekiko disidente agertzeak ez du inolako ondoriorik eragiten. Beste gai batzuk, ordea, emozio mailako inplikazio handia eragiten dutelako edo, oso “delikatuak” dira, eta talde-harremanak gaiztotu egin ditzakete, araua edo pentsamoldea hausten duena isolatzeraino. Kiribilak gai hauen kasuan funtzionatzen du, bereziki.

Teoria hau oso erabilia izan da azken hamarkada bietan prozesu politikoak baldintzatzen duen *iritzi-giroa* ulertzeko. Eta iritzi-giro horren jatorria, neurri handi batean, hedabideetan kokatu ohi da. Izan ere, gizarte oso bati dagozkion gaietan, nola asmatu zein diren iritzi nagusiak, eta zein ez? Azken funtsean, besteei buruz daukagun informazioa “bigarren eskuakoa” izaten da, eta hedabideek ematen digute neurri handian. Hortxe kokatu izan da, teoria honetatik, hedabideen eragina politikagintzan: “besteei” buruzko informazioa eskaintzean, jendeak “iritzi publikoak” edo iritzi-giroak eraikitzen duen irudian eragina dute hedabideek. Jendearen edota politikarrien pertzepzioan eraginez, haien jokabideak baldintzatzen dituzte. Eta, azken funtsean, eraginkor bihurtzen dira politikagintzan. Nolabait esateko, hedabideek ez diote jendeari esaten zer egin behar duen edo nola pentsatu behar duen; baina aurrean nolako errealitatea duen “erakusten” diote, eta hortik dator beren eragina.

Puntu honetan, ordea, ohar bat egin beharra dago Isiltasunaren Kiribilaren Teoriatik iritzi-giroa definitzeko moduz. Hedabideek eragin handia dute, dudarik gabe, iritzi publikoak egiten dugun definizioan. Baina hedabideek

agertzen duten irudia ez da asmakizun hutsa. Medioek errealitateko datu batzuk aukeratu eta beste batzuk ezkutatuta egiten dituzte; batzuk handietsi eta besteak gutxietsi; testuinguru batetik hartu eta beste batean sartu, e.a. Horrela errealitatea *birsortu* egiten dute. Errealitate bera, hartara, oso modu ezberdinetan ager daiteke, medioen izaeraren arabera.

Errealitate hori jendeak gai jakin bati buruz duen iritzia denean, ordea, “datu-iturriak” edo hedabideek behar duten lehengaia ez dira gizakien banako iritziak izaten, medioek ez baitituzte berauek zuzenean ezagutzen. Hedabideek eskura dezaketena zera da: iritzi horien jendaurreko agerpena. Iritzien jendaurreko agerpena hainbat bidetatik agertzen da (norbaiten adierazpenak, agerraldiak, era guztietako ekitaldiak, e.a.), eta bide horretatik iristen dira hedabideetako *gatekeeper* edo atezainengana. Egunkari batera, kasu, ez da iristen nik pentsatzen dudana, hori lagun artean soilik agertzen dut. Baina nire iritzia jendaurrera plazaratzen dudanean (prentsaurreko batean, manifestaldi batean, ekintza batean, e.a.), orduantxe dauka hedabideak hori ezagutzeko aukera. Behin hedabidera iritsita, lehenago aipatutako prozesua jarriko da martxan: aukeratu/ezkutatuta, handietsi/gutxietsi, testuinguru berria eman, e.a. Eta puntu honetan zera azpimarratu beharra dago: hedabideek islatzen duten iritzi-giroa eta jendearen benetako iritzia ezberdinak izan daitezkeen bezalaxe, banakoen iritzien metaketa eta jendarean agertzen diren iritziak ere ezberdinak izan daitezke. Beraz, hedabideetan agertzen den “iritzi publikoaren irudia” eta “jendearen benetako iritzia” edo “errealitate soziala” bereizten ditugun bezalaxe, bigarren kontzeptu honek adieraz ditzakeen bi errealitate

ezberdinak bereiztea komeni da: gizabanakoaren iritzien metaketa hutsa, batetik, eta iritzien agerpen publikoa –edo *jendaurreko errealtate soziala* dei genezakeena– bestetik.

Hau guztia kontuan harturik, “iritzi publikoaz” egiten dugun irudian gutxienez hiru eragilek parte hartzen dutela esan dezakegu: jendearen benetako iritzia, jendaurrean egiten diren agerpenak edo jendaurreko errealtate soziala, eta hedabideek argitaratzen duten irudia.

Hiru eragileon arteko elkarloturak aztertzeke, ikerketa bati ekin genion duela urte bi: *Hedabideen eragina politikagintzaren pertzepzioan* izeneko ikerketa alegia.

3. Ikerketa baten berri: iritzi publikoa negoziazio politikoaren eta euskararen inguruan

Iritzi publikoa nola osatzen den ikerzteke, euskal politikagintzan oso agerpen handia izan ohi duten gai bi aukeratu genituen, haien inguruan gertatzen direnak beste gai askoren inguruan gerta daitezkeelakoan. Gaiok *euskara* eta *ETA-Gobernua negoziazio politikoa* izan ziren. Lehenengoan euskararen egoeraren eta etorkizunaren inguruko “iritzi publikoa” izan genuen aztergai. Bigarrenean, bakegintzarako bidean ETA eta Gobernu Espainolaren arteko negoziazio politikoaren aurrean nolako jarrerak agertzen diren aztertu genuen.

Gure iritziak, gai hauek egokiak dira oinarrian dugun metodologiatik ikerketa burutzeko. Izan ere, eztabaida publikoan oso aipatuak eta polemikoak izateaz gain, jende askok inplikazio emozional handiaz bizi ditu gai hauen inguru-

rukoak. Aurrez aurreko eztabaidetan gaiok sortarazten duten pasioa begibistakoa da. Horrexegatik jo ditugu egokitzat Isiltasunaren Kiribilaren Teoria aplikatzeko garaian.

Lehenago formulatu dugun hipotesiaren arabera, hiru datu-mota ezagutu behar genituen: zer jarrera duen jendeak gai bakoitzaren inguruan, eta zein agertzen duen; zein jarrera jotzen den nagusitzat gizartean; eta zein jarrera agertzen duten hedabideek nagusi gisa. Datuok lortzeko teknika bi erabili ziren: hedabideek zabaltzen duten irudia aztertzeke, haien edukiaren analisia egin zen. Eta jendearen jarrerak eta usteak jakiteko, inkesta bat burutu zen.

3.1. Edukiaren analisia

Edukiaren analisia 1995eko Otsailaren erditik Apirilaren erdira burutu zen, hala Hego Euskal Herrian ikusten diren telebista-albistegietan (TVE 2 izan ezik, hots, ETB 1, ETB 2, TVE 1, TELE-NORTE, TELENAVARRA, TELE 5, ANTENA 3 eta CANAL PLUS) nola lau herrialdeotan argitaratzen ziren zortzi egunkarietan (DEIA, EL CORREO eta EL MUNDO DEL P. V. Bizkaian; DIARIO VASCO, EGIN eta EUSKALDUNON EGUNKARIA Gipuzkoan; DIARIO DE NAVARRA eta DIARIO DE NOTICIAS Nafarroan). Euskararen zein negoziazioaren inguruan gizartean nagusitzat agertzen diren jarrerak hedabideetan nola islatzen diren ikusteko balio izan zigun informazio-multzo honek.

Edukiaren analisiaren bidez gai biotako bat ukitzen zuten artikuluguztiak zenbatu ziren, informaziozkoak, iritziak, eta beste. Geroago sailkatu egin ziren artikulukoak, defendatzen zuten jarreraren arabera iritziak, eta albiste bihurtzen zen jarrera-

ren arabera –zerbaiten aldeko ekitaldia, aurkako adierazpenak, e.a.– informaziozkoak. Aldi berean, zenbaketa hutsaz gain ponderatu egiten ziren artikulua, hedabideak ematen zien garrantziaren arabera (titularrak, orrialde-zenbakia, espazioa-denbora, irudiak, e.a.).

Datuak bildu zireneko uneaz ohar-txo bat egin beharra dago: tarte hartan Elkarrik antolatutako Bake Konferentzia burutu zen Bilbon, ekitaldi hau hedabideentzako informazio-iturri garrantzitsua izan zelarik. Honek garai hartan negoziatioari buruz argitaraturiko artikulua-kopurua puztuarazi bide zuen, bai eta zenbait jarrera aldarazi ere. Beraz, lortutako emaitzak zehazki irakurri behar dira, bereziki ondorioak beste garai batzuetara hedatu nahi izanez gero. Hala ere hau ez da arazoa jendeak gai bati buruz pentsatzen duena, hedabideek argitaratzen dutena eta gizarteak “iritzi publikotzat” jotzen duena behatzeko garaian.

Beste ohar bat edukiaren analisiari buruz: egunkari bakoitzean agertutako artikulua-kopurua alderatzean eragile batzuk hartu behar dira kontuan. Bate-tik EUSKALDUNON EGUNKARIAREN kasua dugu, zeina astelehenetan ez baita argitaratzen (horregatik bere lagina 48 alek osatzen dute, beste egunkariak baino 9 gutxiago) eta orrialde-kopuru nabarmen txikiagoa baitauka; halabeharrez artikulua-kopuru txikiagoa argitaratu dezake besteek baino. Bestalde, titularrak duen unitate oro hartu da artikulutzat; baina egunkariok egitura ezberdina darabilte, eta batean orrialde osoko artikulua osatzen duen gertaera bera, beste batean hiruzpalau artikulua txikitzen zatituta agertzen da, informazio berbera edukita. Oro har, EUSKAL-

DUNON EGUNKARIAN eta EGINEN artikulua gutxiago baina handiagoak agertu ohi dira, eta EL CORREO, EL MUNDO DEL PAIS VASCO, DIARIO VASCO eta DEIAN artikulua gehiago agertzen dira, baina txikiagoak.

3.2 Inkesta

Inkesta 1995eko udaberrian burutu zen, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako 2.788 pertsonari galdetegia eginez. Horrela, populazio osoaren ordezkotzat datuak lortu ziren.

Jendeak euskararen inguruan duen iritzia jakiteko, galdera-sorta bat egin zitzaion galdezkatuei, bai etorkizuneko nahi den egoerari buruz, bai euskararen alde hartzen ari diren neurriei buruz. Gaztelania nagusi den egoera bat nahiago dutenak edota euskararen alde egiten ari den esfortzua gehiegizkotzat jotzen dutenak, “euskararen aurkakotzat” jo ziren. Bestalde, “euskararen aldekotzat” hartu ziren gutxienez euskara/gaztelania parekotasunaren alde agertzen zirenak, euskararen nagusitasunaren aldekoek gain, noski.

ETA eta Gobernuaren arteko negoziatioari buruz, negoziatio politikoaren aldekotzat jo ziren hala aitortzen zutenak. Eta aurkakotzat jo ziren edozein hartuemanen aurka zeudenak zein negoziatio “tekniko” hutsa (alegia armak entregatzeko eta presoez mintzatzeko, inola ere ez eduki politikorik duena) aldarrikatzen zutenak.

Gai biotan, bere ustez zein den jarrera nagusia gizartearen galdetu zitzaion galdezkatuari, eta inolako gizarteko presiorik jasaten ote duten alde batetik zein bestetik.

**4. Hedabideen gai-ordena
eta jarrerak
euskara eta negoziazioaren aurrean**

4.1. Euskara

1. taulan edukiaren analisiaren emaitzak ikus daitezke, euskarari dagokionez. Bertan gai honen inguruan hedabide bakoitzean agertutako artikulua edo albiste-kopuruak agertzen dira. Aldi berean, ehunekotan, artikulua edo albisteok erakusten duten jarrera agertzen da, hots, argitaratzen den albistea euskararen aldeko zerbaiten berri den (ekitaldia, adierazpena, e.a.), ala aurkakoa; eta iritzizko artikuluetan, aldekoa ala aurkakoa den.

Ikusten denez, gauza nabarmena da euskarari arreta gehien jartzen diona EUSKALDUNON EGUNKARIA dela: 197 artikulua argitaratu ditu neurtutako bi hilabeteetan. Kontuan hartuta, gainera, egunkari honen mugak (astelehe-

netan ediziorik ez eta orrialde gutxiago izatea), kopuru horren esangura area-gotu egiten da. Batezbeste, EUSKALDUNON EGUNKARIAK egunean 4,1 artikulua argitaratu ditu, hurrengoak EGIN izanik, 3,1 artikulurekin. Atzetik EL MUNDO (batezbeste 2,2) eta DEIA (1,9). Esan beharra dago, gainera, azken bi hauetako artikulua aurreko bi egunkarietakoak baino txikiagoak direla.

Atzerago datoz DIARIO VASCO (1,7) DIARIO DE NOTICIAS (1,5) eta EL CORREO (1,4). Tropelaren gibelean, arnas-estuka, DIARIO DE NAVARRA agertzen da (eguneroko 0,5 artikulurekin).

Telebistei dagokionez, berriro ere euskarazko medioa da euskarari arreta handiena jarri diona: ETB 1. Jarraian dator ETB 2, alde handi xamarrarekin. Aipagarria da alde hau, gure iritziz. Izan ere gaztelerazko kanalaren helburuetan erdaldunak euskal kulturara hurbiltzea agertzen bada, logikoa litzateke

| 1. Taula: Euskarari buruz agertutako artikulua/albiste kopuruak, eta erakusten duten jarrera | | | | |
|--|------------------------------|--------|---------|-----------|
| | EUSKARARI BURUZKO ARTIKULUAK | | | |
| | orotara | alde % | aurka % | neutroa % |
| EUSKALDUNON EGUNKARIA | 197 | 90 | 6 | 5 |
| EGIN | 178 | 83 | 8 | 10 |
| DIARIO DE NAVARRA | 30 | 83 | 10 | 7 |
| DIARIO DE NOTICIAS | 86 | 64 | 2 | 34 |
| EL MUNDO | 124 | 82 | 8 | 11 |
| DEIA | 108 | 79 | 12 | 9 |
| EL CORREO | 80 | 76 | 23 | 1 |
| DIARIO VASCO | 97 | 80 | 20 | 0 |
| EGUNKARIAK OROTARA | 900 | 81 | 10 | 9 |
| ETB 1 | 30 | 97 | 3 | 0 |
| ETB 2 | 22 | 100 | 0 | 0 |
| TELENORTE | 10 | 100 | 0 | 0 |
| TELENAVARRA | 5 | 80 | 20 | 0 |
| ANTENA 3 | 0 | - | - | - |
| TELE 5 | 0 | - | - | - |
| TVE 1 | 0 | - | - | - |
| CANAL PLUS | 0 | - | - | - |
| TELEBISTAK OROTARA | 67 | 97 | 3 | 0 |

gutxienez euskarazko kanalak beste garrantzia ematea euskarari.

Oso atzetik agertzen dira, bestalde, TELENORTE eta TELENABARRA. Azkenik, lasterketan abiatu gabe oraindik, Madriletik igortzen duten kateak dauzkagu (ANTENA 3, TELE 5, TVE 1 eta CANAL PLUS), euskarari buruz albiste bat bera ere eman ez dutenak. Esan dezakegu, beraz, Estatu kulturantzun eta eleaniztunaren propaganda askorik ez dutela egiten, albistegietan bederen.

Hedabideetan euskararen inguruan islatzen diren gizarteko jarrerei so eginez gero, zera ikus daiteke: orokorrean, hedabideek euskararen aldeko gizarte bat erakusten dute. Hala egunkarietan nola telebistetan, euskarari buruz agertzen diren artikulua/albiste ia guztiek euskararen alde egindako edo esandako zerbaiten berri ematen dute. Hortik hartzaileak har dezakeen irudia, beraz, euskal gizartea, oro har, euska-

raren aldekoa dela izango da, betiere gure hipotesien arabera.

Orokortasunetatik hedabide bakoitzak erakusten duen irudira igaroz, ezberdintasun handiak ikusten dira. Aldekotasuna guztietan nagusi bada ere (euskara aipatu ere egiten ez duten telebistak salbu), erakusten den aldekotasun-maila ezberdina da medio batetik bestera. Horrela EUSKALDUNON EGUNKARIAN edota EGINEN euskararen aurkako jarrera erakusten duten gertaera edo adierazpenen berririk ia agertzen ez den bitartean, EL CORREO edo DIARIO VASCON % 24 eta % 20 dira, hurrenez-hurren, aurkakotasun horren berri ematen duten albiste edo iritzizko artikulua.

5.2. Negoziazioa

2. taulan edukiaren analisiaren emaitzak agertzen zaizkigu, negoziatioari dagokionez:

| 2. Taula: ETA-Gobernua negoziatioari buruz agertutako artikulua/albiste kopuruak, eta erakusten duten jarrera | | | | |
|---|-------------|--------|---------|-----------|
| | NEGOZIAZIOA | | | |
| | orotara | alde % | aurka % | neutroa % |
| EUSKALDUNON EGUNKARIA | 69 | 71 | 29 | 0 |
| EGIN | 86 | 65 | 29 | 6 |
| DIARIO DE NAVARRA | 13 | 31 | 46 | 23 |
| DIARIO DE NOTICIAS | 19 | 68 | 5 | 26 |
| EL MUNDO | 156 | 76 | 16 | 8 |
| DEIA | 137 | 75 | 22 | 4 |
| EL CORREO | 144 | 47 | 49 | 5 |
| DIARIO VASCO | 174 | 44 | 53 | 3 |
| EGUNKARIAK OROTARA | 798 | 61 | 34 | 5 |
| ETB 1 | 34 | 85 | 15 | 0 |
| ETB 2 | 42 | 71 | 26 | 2 |
| TELENORTE | 27 | 59 | 41 | 0 |
| TELENABARRA | 0 | — | — | — |
| ANTENA 3 | 12 | 42 | 50 | 8 |
| TELE 5 | 9 | 44 | 56 | 0 |
| TVE 1 | 11 | 36 | 55 | 9 |
| CANAL PLUS | 8 | 100 | 0 | 0 |
| TELEBISTAK OROTARA | 143 | 67 | 31 | 2 |

Hiru multzo bereiz daitezke, egunkarien artean, negoziazioari jarritako arretari dagokionez: DIARIO VASCO, EL MUNDO, EL CORREO eta DEIAK osatzen dutena, batetik; EGIN eta EUSKALDUNON EGUNKARIA, bestetik; eta DIARIO DE NOTICIAS eta DIARIO DE NAVARRA, hirugarrenik. Lehenengo lauek negoziazioari buruzko artikulu ugari argitaratu dituztelarik, hurrengo biek ez diote hain arreta handirik jarri, eta azken biek oso txikia jarri diote. Ezberdintasun hauek hobeto ulertzeko, ordea, gogoan hartu behar dira lehenago eginiko zenbait zehaztapen: EUSKALDUNON EGUNKARIAren izaera, egunkarien arteko egitura-keta ezberdinen arazoa, zeinarengatik batzuek informazio-kopuru eta beraz titular gehiago eta beste batzuek gutxiago osatzen dituzten, e.a. Hauez gain, datu-bilketa burutu zen uneari buruzko oharrak ere gogoangarriak dira. Izan ere, egunkariotan negoziazioari buruzko artikuluak argitaratzeko parada eman duena, neurri handi batean, Elkarrik antolatutako Bake Konferentzia izan da. Gai honek negoziazioari buruzko artikulu-kopurua puztu du, egunkari batzuetan gehiago beste batzuetan baino. Eta, hain zuzen ere, oraingoan negoziazioari arreta handiena eman dioten egunkariak dira eragin hau pairatu dutenak. Bi datuk konfirmatzen digute puztutze hau. Batetik, DIARIO VASCO, EL MUNDO, EL CORREO eta DEIAN negoziazioari buruzko artikuluak bi heren bete ditu Elkarriren Bake Konferentziak, EGIN eta EUSKALDUNON EGUNKARIAN ekitaldi honek artikuluak erdia bete duen bitartean; egunkari hauek, ordea, bestelako azpiguaiak ere nabarmendu dituzte negoziazioari buruz; esaterako, ELA-LABek Aberri Egunerako eginiko agiria, zeinak gainerako egunkarietan oso agerpen txikia duen. Bigarren datua honakoa da: aurreko urteko lagin bat harturik, ikusi ahal izan dugu EGIN eta

EUSKALDUNON EGUNKARIAK batez beste egunero antzeko artikulu kopuruak argitaratzen zutela, negoziazioari buruz, 1994an zein 1995eko udaberrian. DIARIO VASCO, EL MUNDO, EL CORREO eta DEIAN, ordea, artikulu-kopuruak nabarmen gora egiten du 1995eko udaberrian, dudarik gabe Konferentziaren eraginez (DIARIO VASCOren kasuan, esaterako, batezbesteko eguneroko artikulu-kopurua ia hirukoiztuz: 1,1etik 3,1era).

Bake Konferentziak egunkari batzuetan izaniko eragina, eta orokorrean egunkariak haren aurrean erakutsitako jarrera, bereziki aztertze moduko gertaera dela uste dugu, inplikazio soziologikoak (gaiaren publikotasunari dagozkionak) eta politikoak (batzuetan eragindako jarrera-aldaketak, eta beste batzuetan ez eragindakoak irakurketa politikoa izan dezakete) baititu. Honek, ordea, beste ildo batetik eraman go gintuzke, eta bera aipatzera mugatuko gara.

Telebistetan ere aipagai izan da negoziazioa, TELENAVARRAN izan ezik. Ikusten denez, ETBko kanal biak dira negoziazioari arreta handiena jarri diotenak, baina ezberdintasun esanguratsuak daude bion artean. Batetik, gaztelerazko katean albiste gehiago agertu da euskarazkoan baino. Bestetik, euskarazkoan erakutsi den gizarte-ko jarrera negoziazioaren aldekoagoa izan da gaztelerazkoan erakutsitakoa baino, azken honetan aurkakotasuna nabarmentzen duten albisteak % 26a izan baitira.

Bestalde, azpimarragarria da Madrildik igortzen diren telealbistegien artean agertzen den antzekotasuna, gaiari emandako garrantziari dagokionez. Lau kateek 8 eta 12 arteko albiste-kopurua eman dute gai honi buruz.

Era berean, TVE 1, ANTENA 3 eta TELE 5 kateek albiste gehiago eman dute negoziazioaren aurkako jarrera erakusten dutenak, aldekoak baino. Aipagarria deritzogu antzekotasun horri, izaera ezberdineko telebistak direla kontuan hartuta (pribatuak eta publikoak). CANAL PLUS katearen kasua ere azpimarragarria da: emandako albiste guztiek negoziazioaren aldeko jarrera erakutsi dute. Dena den, Estatu mailako abistegiaren datuok zuhurtziaz irakurri beharra dago, kopuru txikiak bai-tira erabateko ondorioak ateratzeko.

Azkenik, TELENORTE Madrilgo eta Euskal Herriko kateen bitartean kokatuta agertzen da, hala albiste-kopuruari dagokionez, nola erakusten duen jarrerari dagokionez. Bi muturren artean egote honek zera erakusten digu: telebista-kateek negoziatioari jarritako arreta ez dela, soilik, albistegiaren hedapen-eremuaren arabera; hala balitz, ETBn bezalako kopuruak agertuko liriateke. Aitzitik, hedabidearen jabetza ere (kasu honetan TVERena) haren gai-ordena mugatzen duten eragileen artean agertzen da, nabarmenki gainera.

Bukatzeko, TELENAVARRAREN kasua dugu: nahiz eta negoziatioaren gaia Nafarroan Baskongadetan bezain garrantzitsua izan, kate honek albiste bakar bat ere ez dio eman.

5. Populazioaren jarrerak eta iritziak

5.1. Euskarari buruzko jarrerak eta usteak

Hego Euskal Herriko populazioaren gehiengo batek euskararen aldeko jarrera agertzen du. Orokorrean, jendemu- multzo handiena Administrazioak euskara berreskuratzeko egiten duen esfortzuekin eta gizarte elebidunaren

beharrarekin bat dator: % 40a eta % 60a hurrenez-hurren. Beste multzo garrantzitsu batek gehiago nahiko luke euskararentzat, Administrazioaren esfortzua ez-nahikotzat jotzen baitu (% 34a) edota etorkizunean euskaraz gazteleraz baino gehiago hitz egin ledin nahiko bailuke (% 22a). Aurkakotasunezko jarrera erakusten dutenek, ordea, gutxiengo nabarmena osatzen dute: % 7ak gehiegizkotzat jotzen du euskara berreskuratzeko Administrazioaren esfortzua, eta % 14ak gazteleraz gehiago hitz egin ledin nahiko luke, euskaraz baino. Honek guztiak, gure iritziaren, gizartean euskararen aldeko jarrera nagusi dela pentsarazten du, jarrera horren indar eraginkorra norainokoa den –eraginkorra euskararen normal-kuntzarako– zehaztea zaila gertatzen den arren. Izan ere, galdeketa eman-dako erantzun positiboak gutxi erakusten du norberaren konpromisoaz euskararen normalkuntzarekiko.

Hego Euskal Herriko populazioak euskararen alde duen jarrera, bestalde, oso modu argian hautematen da gizartean. Auzi baten inguruko “iritzi publikoaren” irudiaz galdetzeko modu bat, auzi horren etorkizunerako joerei buruz galdetzea da. Iritzi publikoak alde batera jotzen badu, etorkizunerako joera alde horretarako izango dela uste izaten da, eta alderantziz. 3. Taulan galdera horri emandako erantzunak jasotzen dira, ehunekotan.

Taula honetan lehenik azpimarra daitekeena erantzunen erabatekotasuna da. Erabatekotasuna, gainera, bi zentzutan agertzen da: batetik, gizartean euskararen aldeko jarrerak nagusi badira ere, ikusi dugu jendearen gehiengoa “erdiko” jarreretan agertzen dela (elebitasunaren helburua edo Administrazioaren lanaren nahikotasuna baietsiz). Baina bost

| 3. Taula: Euskararekin etorkizunean izango den atxikimenduari buruzko usteak | | | | | |
|--|----------|-------|---------|----------|--------------------|
| | Nafarroa | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Hego Euskal Herria |
| Euskararekiko atxikimenduak etorkizunean gora egingo duela uste dut | 66 | 81 | 82 | 82 | 79 |
| Behera egingo duela uste dut | 7 | 4 | 2 | 4 | 4 |
| Berdintsu jarraituko duela uste dut | 12 | 9 | 9 | 9 | 10 |
| Ez Daki/Erantzunik Ez | 15 | 6 | 7 | 5 | 8 |

inkestatutatik lauk oso argi dauka euskararekiko atxikimenduak gora egingo duela. Honek zera susmarazten du: euskararekiko atxikimendua benetan dena baino handiagoa delako ustea hedatuta dagoela.²

Bestalde, aipagarria da honako datu hau: jende gehienak erantzun egiten dio galderari. Hots, jende gehien-gehienak osatuta dauka besteen jarrerari buruzko ustea. Besteen jarrerak ezagutzeko zailtasunaz mintzatu bagara ere, argi dago nola edo hala jarrera ezezagun horiek ezagutu uste izaten dela. Hori erakusten du hamar inkestatutatik bederatzik zerbait erantzun izanak, eta Isiltasunaren Kiribilaren Teoriaren oinarrietako bat (hots, besteen jarrerak behatu eta epaitu egiten ditugula) frogatzen du.

5.2. Negoziazioari buruzko jarrerak eta usteak

Euskararen kasuan baino nabarmenkiago agertzen da negoziazioaren

kasuan jendeak –banakoen multzo gisa hartuta– duen jarreraren eta nagusizat jotzen den jarreraren arteko aldea. Izan ere, 4. eta 5. tauletan ikus daitekeen legez, Hego Euskal Herrian pareko xamar agertzen dira ETA-Gobernua negoziazio politikoaren aldekoak eta aurkakoak, lehenengoak zertxobait gehiago badira ere; baina gizartean erabat hedatuta dago negoziazioaren aldekoak gehiengo direlako ustea, banakoen jarreraren behaketatik erator zitekeen baino hedatuago alegia. 4. taulan banakoen jarrerak agertzen dira, bi multzotan banatuta: negoziazio politikoaren aurkakoak (hots, inolako elkarrizketarik nahi ez dutenengandik armen eta presoengandik armen eta presoengandik armen inguruko negoziazio tekniko batera mugatuko luketenenganaino), eta eduki politikoa izango lukeen negoziazioaren aldekoak, bestetik.

Ikus daitekeenez, oso gutxi dira (% 13) Hego Euskal Herriko populazioaren gehiengo negoziazio politikoaren aurka dagoela uste dutenak. Hala ere,

2. Datu honen inguruan, ordea, ezberdintasun nabariak daude herrialdeen artean. Horrela, Gipuzkoan eta Bizkaian euskararekiko gizarteko atxikimendua handia delako ustea hedatuta dagoen bitartean, Araban eta Nafarroan askok uste du euskararen aurkako jarrerak oso presentzia handia duela. Pertzepzio honetan eragin handia dute, seguruenik, hedabideen jokaerak: batetik Nafarroako hedabideetan euskararen existentziari buruzko berrien presentzia, ikusi dugunez, oso murrizta da. Bestetik, datu-bilketa burutu zenean pil-pilean zegoen Arabako euskararen normalkuntzaren inguruko eztabaida, UAK zenbait eskualdetan euskararen ofizialtasuna bertan behera uzteko eginiko proposamenak eta Batzar Nagusietako Ponentziak Amando de Migueli enkargaturiko inkestak sortuta.

| 4. Taula: ETA eta Gobernu Espainolaren arteko negoziazio politikoari buruzko jarrerak | | | | | |
|---|----------|-------|---------|----------|--------------------|
| | Nafarroa | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Hego Euskal Herria |
| Negoiazio politikoaren aurka | 42 | 29 | 47 | 32 | 40 |
| Negoiazio politikoaren alde | 37 | 55 | 38 | 53 | 44 |
| Ez Daki/Erantzunik Ez | 21 | 16 | 15 | 15 | 16 |

| 5. Taula: Negoiazioaren inguruan nagusi diren jarrerari buruzko ustea | | | | | |
|---|----------|-------|---------|----------|--------------------|
| | Nafarroa | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Hego Euskal Herria |
| Jende gehiena negoziazioaren aurka dagoela uste dut | 27 | 10 | 10 | 7 | 13 |
| Gehienak alde daudela uste dut | 37 | 67 | 63 | 56 | 57 |
| Ez Daki/Erantzunik Ez | 36 | 23 | 27 | 36 | 30 |

| 6. Taula: Gizarteko presioaren pertzepzioa negoziazioaren alde | | | | | |
|--|----------|-------|---------|----------|--------------------|
| | Nafarroa | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Hego Euskal Herria |
| Negoiazioaren alde hitz egitea ondo ikusita dago | 36 | 54 | 57 | 56 | 52 |
| Ez dago ondo ikusita | 24 | 15 | 10 | 9 | 13 |
| Ez Daki/Erantzunik Ez | 40 | 31 | 32 | 36 | 35 |

benetan aurka azaltzen direnak ia erdia dira (% 40a). Jendearen benetako jarreraren eta besteei buruzko ustearen arteko desoreka hau bereziki nabarmentzen da Bizkaian eta Nafarroan. Izan ere, Bizkaian inkestatu gehiago agertzen da negoziazioaren aurka alde baino (% 47a eta % 38a, hurrenez-hurren); hala ere, oso gutxi ohartzen da errealitate horretaz, eta gehienak alde daudela uste dutenak % 63a dira, beren

juzkuetan errealitatea asmatzen dutenak (hots, gehiengoa aurka dagoela uste dutenak) % 10a soila delarik. Antzeko gertaera ikus daiteke Nafarroan, non benetako gehiengoa aurkakoa izanik, uste izandako gehiengoa aldekoa den.

Populazioaren gehiengoa negoziazioaren alde dagoelako ustea, bestalde, gizarteko nolabaiteko presioarekin

batera dator. Gizartean negoziazioaren aldeko presioa nabari du jendeak, 6. Taulan ikus daitekeen legez.

Taula honetan aipagarria da, bereziki, Nafarroaren eta gainerako herrialdeen arteko aldea. Ikusten denez, gizarteko presio handiagoa nozitzen da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan negoziazioaren alde, Nafarroan baino.

Datu hauek eskuan ditugula, zera esan dezakegu: nagusi den jarrerari buruzko ustea ez da osatzen "besteen" jarreraren behaketa hutsetik, eta beste nonbaitetik ere osatzen da. Esan nahi baita, gizartean nagusi den jarrera igertzeko orduan lehen mailako erreferentzia norberaren jarrera izango balitz (asmoak eta errealitateak nahastera garamatzen mekanismo psikologikoren baten ondorioz), nekez esplikatuko litzateke jendearen jarreraren eta besteei buruzko usteen arteko aldea. Berdin gertatuko litzateke besteei buruzko juzkuak osatzean ikusmira nagusia gure inguruko pertsonen jarrerak balira; kasu honetan benetako jarrerak eta usteek antzekoagoak izan beharko lukete. Beraz, zuzenean ezagutzen ez den errealitate hori igertzeko garaian bestelako erreferenteak ere erabiltzen direla somatzen dugu; eta ikusi dugunez, hedabideak izan daitezke erreferente horiek. Izan ere, hedabideek islatzen duten irudia negoziazio politikoaren alde dagoen euskal gizarte batena da, edukiaren analisiak emandako datuek erakutsi duten moduan. Hipotesi hau Isiltasunaren Kiribilaren Teoriarekin bat dator, eta hedabideek politikagintzaren pertzepzioan duten eragina ikustarazten du.

Laburbilduz, zera esan dezakegu: hedabideek errealitatearen irudi bat hedatzen dute, irudi hori benetako errealitatearen ezberdina izan daite-

keelarik. Hartzailleek irudi hori jaso eta beren irudi propioa osatzen dute, berriro ere irudi horrek ez duelarik zertan bat etorri behar errealitate objektiboarekin. Zenbait ikerlarik diotenaren arabera, gainera, errealitateaz osatzen dugun irudi horrek gure jendaurreko jokabidea baldintzatzen du eta, hainbat kasutan, gure iritziak aldatzera eraman gaitzake. Hortxe kokatuko litzateke, beraz, hedabideek gizartean duten eraginaren alderdietako bat. Honaino iritsita, ordea, honako galdera hau egin beharrean gaude: zeren arabera osatzen dute hedabideek errealitatearen irudi bat edo beste? Lerro editoriala da erabakigarriena, edota bestelako eragileak sartzen dira jokoan? Galdera hau erantzuten has-teko lehenago aipatu dugun *jendaurreko errealitate sozialari* erreparatu behar diogu.

6. Jendaurreko ekimenen garrantzia hedabideek zabaltzen duten irudian

ETA eta Gobernu Espainolaren arteko negoziazio politikoaren auzira mugatuz, hedabideek oro har hedatzen duten irudia prozesu horren aldeko gizarte batena da. Hau, gainera, bana-koen iritzien batuketa hain erabatekoa ez delarik. Esan nahi ote du honek hedabideek, arrazoi ezberdinengatik, negoziazioaren aldeko errealitate bat islatzeko interesa dutela? Negozi-azioaren alde ote daude hedabideak, kontserbadoreenak barne, jarrera poli-tiko hori beren argitalpenetan islatzen delarik?

Dударик ez dago hedabideen lerro editorialak zerikusi zuzena duela hauek errealitateaz zabaltzen duten irudiarekin. Madrilen finkatuta dauden telebistek negoziazioaren aurkako gi-zarte bat eta Euskal Herriko telebisten

negoziazioaren aldeko gizarte bat hedatzeak horixe erakusten digu. Hala ere, lerro editorialak ez du dena esplikatzen. Hedabideetako “informaziozko” eta “iritzizko” artikuluen arteko bereizketa eginez, berori ikus dezakegu.

Bereizketa hori honako hipotesian oinarritzen da: iritzizko artikuluetan gehiago islatzen da hedabidearen lerro editoriala, informaziozko artikuluetan baino. Honek ez du esan nahi azken hauetan lerro editorialak pisurik ez duenik; inozokeria litzateke hori pentsatzea. Lerro editoriala gertaera aukeratzeko unean bertan agertzen da, eta albistearen eraikuntza-prozesu osoa zeharkatzen du. Hala ere, informaziozko artikuluetan errealitate objektiboa lehengaia da, hedabideak gero landuko duen lehengaia alegia. Eta informaziozko artikulua hari zor zaio neurri batean, iritzizko artikulua baino gehiago. Honek ez du hainbeste fideltasunik gorde behar errealitatearekin. Nolabait esateko, iritzizko artikuluan errealitatea mintzagaia da, iritzi bat plazaratzeko aukera ematen duena. Informaziozko artikuluan, ordea, mintzagaia izateaz gain, albistea eraikitzeke bestelako osagaiak ere ematen dituen gertaera da errealitatea.

Bereizketa honetan oinarriturik, beraz, egunkarietako artikulua banatu

ditugu, iritzizkoak edo informaziozkoak diren arabera. Datuak 7. Taulan ikus daitezke.


Ikusten denez, informazio-atalean gehiago dira aldeko jarrera zein iritzien berri ematen dutenak, aurkakoak baino. Joera hau egunkari guztietan gertatzen da, DIARIO DE NAVARRAN izan ezik (hala ere honen lagina txikiegia da erabateko ondorioak ateratzeko). Aldekotasunaren adierazpenen nagusitasuna guztietan gertatzen bada ere, alabaina, egunkarien artean ezberdintasun handiak daude.

Iritzi-atalera bagoaz, ordea, erabat ezberdinak dira gauzak. Egunkari gehienak ia kolore bakarreko agertzen zaizkigu. Horixe gertatzen da EUSKALDUNON EGUNKARIA, EGIN, DIARIO DE NOTICIAS, EL MUNDO, eta DEIA, non ia iritzizko artikulua guztiek negoziazioa baiesten duten. EL CORREO eta DIARIO VASCON, berriz, aldeko zein aurkako artikulua agertzen dira, baina azken hauen nagusitasuna nabarmena da, DIARIO VASCON bereziki. Eta azpimarratzekoa da, egunkari hauei dagokienez, iritzi-sailean irauli egiten dela informazio-sailean erakusten zuten joera, hartan gehiago baitziren aldeko artikulua, honetan gehiago izanik aurkakoak. 1. irudian nabarmen agertzen da gertaera hau.

7. Taula: Negoziazioari buruzko artikulua-kopuruak egunkarietan, generoaren arabera

| | Informaziozko artikulua | | Iritzizko artikulua | |
|-----------------------|-------------------------|-------|---------------------|-------|
| | Alde | Aurka | Alde | Aurka |
| EUSKALDUNON EGUNKARIA | 41 | 16 | 8 | 1 |
| EGIN | 40 | 19 | 16 | 1 |
| DIARIO DE NAVARRA | 4 | 5 | 0 | 1 |
| DIARIO DE NOTICIAS | 11 | 1 | 2 | 0 |
| EL MUNDO | 69 | 23 | 49 | 1 |
| DEIA | 69 | 26 | 33 | 3 |
| EL CORREO | 53 | 48 | 13 | 22 |
| DIARIO VASCO | 60 | 55 | 14 | 34 |

1. Irudia: Negoziazioari buruzko iritzi-artikuluen jarrera.



Honek guztiak zera baieztatzen garrantzitsua: egunkarietan informazio-sailen eta iritzi-sailen argitaratzen diren artikuluen jarreraren arteko desoreka. Kasu batzuetan (DIARIO DE NOTICIAS, EL MUNDO, DEIA, EUSKALDUNON EGUNKARIA eta EGIN), sail biotan agertzen diren artikuluen gehienak kolore batekoak izan arren, informaziozkoetan ez da antzematen iritzi-zokoa ikus daitekeen erabatekotasuna, informaziozko artikuluen, negoziatzioari buruzko jarrera ezberdinak erakusteari dagokionez, aniztagoak izanik. Beste kasu batzuetan (EL CORREO eta DIARIO VASCO bereziki) are handiagoa da desoreka bi sailen artean, batean jarrera bat nagusi izateko bestean beste izatera igarotzen baitira.

Desoreka hauek azaltzeko, eta hauek da gure ondorioa, negoziatzioaren inguruan dagoen gizartearen errealitate-ra jo behar dugu. Ikerketa egin den garaian, ETA eta Espainiako Gobernuaren arteko negoziatzio politikoaren aldeko errealitate sozial bat egon da Hego Euskal Herrian. Errealitate sozial hori, herritar banakoen jarreraren batuketara hutsa baino harantzagokoa da. Ikusi dugu ia negoziatzioaren aldeko bezainbat jende dagoela negoziatzioa-

ren aurka. Hala ere, jendeak *susmatu* egiten du negoziatzioaren aldeko jarreraren nagusitasuna, oso nabarmenki gainera, eta inkestatu gehientsuek negoziatzioaren aldeko presioa sentitzen dute. Bestalde, *jendaurreko errealitate sozial* hori hedabideetan islatua da. Horra datu bat: egunkarietan gai honen inguruan aurkitu ditugun informazio eta iritzi gehienak negoziatzioaren alde burututako ekimen edo agerpen publikoak izan dira. Elkarrik antolatutako Bake Konferentzia (artikulu guztien % 65aren iturri), Maroñoko taldeek Altsasun negoziatzioaren alde lortutako akordioa (% 6a), ELA eta LABek Aberri Egunerako argitaratutako agiria (% 4a) eta Irlandako negoziatzio-prozesuak Euskal Herrian eduki dezakeen isla (% 4a) izan dira, azpizgai txikiago bartzuekin batera, negoziatzioari buruz alde edo aurka agertzeko aukerak. Azpizgai nagusiotan ez dugu aurkitzen negoziatzioaren aurka burututako ekimen edota jendaurreko agerpenik; hauek aipatutako gertaerak izan dituzte iturburu. Nolabait esateko, neurtu dugun saio honetan negoziatzioaren aldekoak izan dira gaijartzaile, gero bertsolari bakoitzak berea eman duelarik (gehienek, gainera, alde). Beraz, gertaera eta iritziak hedabideetara iritsi baino

lehenagoko errealitate sozial bat dago, gehienbat negoziazioaren alde jendaurrean burututako ekimen eta agerpenek osatuta.³ Hedabideek errealitate hori jaso eta, beren ikuspuntu eta lerro editorialaren arabera, itxuratu egiten dute, informazio eta iritzi-produktu gisa kaleratzeko. Baina, ikerketaren hasierako planteamendu metodologikoetara joaz, "iritzi publikoaren irudia" sortu ez dute hedabideek soilik sortzen. Hedabideak eragileak dira irudi-sorkuntza horretan, baina aldi berean badira eragindakoak ere: gizarteko subjektuek jarritako gaiak kantatzen baitiete (bertso luzeagoak edo laburragoak, zuriak edo beltzak, eginez).

Hedabideek "iritzi publikoaren irudia" sortzean duten ahalmena ez da zalantzan jartzen planteamendu honetan; ez da hori gure asmoa. Azpimarratu nahi duguna zera da: jendaurrean burutzen diren ekimen eta agerpenek ere garrantzi handia dutela gizarteko irudi-sorkuntzan, era zuzenean batzuetan, edota hedabideen bitartez besteetan. Gure kasuan, negoziatioari dagokionez, honen alde burutu diren jendaurreko ekimen eta agerpenek balio izan dute, seguru asko, faktikoki existitzen ez den gertaera bat (negoziatio) mintzagai bihurtu dadin. Soziologian ezaguna denez, begibistako errealitateak ez dira ikusten, eta horrexegatik dira eraginkorrenak, ez baitira kuestionatu ere egiten. Hori dela eta, gaia jendaurrera ateratzea errealitatea

(negoziatioari eza) aldatu ahal izateko lehenengo urratsa da. Lehenengo urrats honetatik bigarrenean (hots, prozesu kiribil baten bitartez herritar gehienak haren alde jartzera) pasatu garen ala ez ezin esan, gure ikerketak ez baitu hainbesteko ematen. Isiltasunaren kiribilaren hipotesia zuzena bada, uste dugu honetan urrats hori emateko behar diren osagai guztiak betetzen direla. Jendaurrean iritziak ekimen politikoak noraino baldintzatuko dituen, artikuluen hasieran genioen legez, beste kontu bat da.


7. Laburbilduz

Iritzi publikoa, azken funtsean, norberak gizartean nagusi den iritziaren hautematen duen irudia da. Irudi hori gizartean oso hedatuta dagoenean, orduan deitzen zaio "iritzi publiko". Baina ez du zertan bat etorri behar jendaurrean benetako iritziarekin.

Hautematen dugun irudi horrek hainbat eragin izan ditzake. Gizabana-koa bere jokabidea aldatzera eraman dezake, baldin eta iritzi "ezberdina" edukitzeagatik gizartean baztertua izango delakoan isiltzen bada. Edota iritzi-aldaketa ere eragin lezake, isolatua izatearen beldurak bultzatuta. Eragin-mota hauek neurtzeko, hala ere, epe luzerako ikerketak behar dira, eta horrelako daturik ez daukagu eskuartean.

3. Negoziatioaren aldeko errealitate sozial honen aldean, jakina, negoziatioaren aurkako errealitate *faktikoa* dugu: izan ere, Gobernuak ez du negoziatioaren ETArekin. Eta hemen arazo bat planteatzen da isiltasunaren kiribilaren hipotesia erabiltzean: jendeak "iritzi publikoaren irudia" osatzen duenean, zerk duen eragin handiagoa: hedabideetan agertzen denak (kasu honetan jende askok negoziatioa aldarrikatzen duela), edota agertzen ez denak (negoziatioari eza). Pentsa genezake, agertzen ez denak ez duela kiribilak eragiten, ez hedabideen bitartez bederen (ez baita agertu ere egiten). Kiribilezko gertaerarik suertatzen bada, hedabideetan agertutakoen inguruan suertatuko da. Gure kasuan, beraz, pentsa liteke negoziatioaren aldeko kiribila eragingo litzatekeela. Beste auzi bat da, arraz ezberdina, une jakin batean negoziatioaren alde sor litekeen kiribilak zein eragin politiko izan dezakeen, lehenago aipatu dugun errealitate faktikoa kontuan hartuta.

2. Irudia: Iritzi publikoaren eraikuntza.



Gizartean nagusi den iritziari buruzko irudiak bestelako eraginak ere izan ditzake politikagintzan. Izan ere, politikariak, batzuetan, iritzi publikoari so egoten dira. Beraz, nolako irudia begitaratzen zaien, halako jokaera burutuko dute. Alabaina, iritzi publikoa ez da politikarien jokabiderako gidari bakarra; gidari nagusia ere ez, sarritan.

Iritzi publikoaren irudiaren eraikuntzan, hiru eragileri begiratu behar zaie: gizarte bateko kideek zein iritzi dituzten; iritzi horietatik zein agertzen diren jendaurrean, hots, eremu publikoan; eta, besteei buruzko informazio-iturri gisa duten garrantziagatik, hedabideek zein irudi ematen duten.

Hiru eragile hauen artean osatzen da iritzi publikoaren irudia. Bakoitzak zer pisu duen, zaila da esaten, eta

seguraski kasu bakoitzaren arabera da. Hedabideek gizabanakoek iritzi noraino baldintzatzen duten neurtzerik ez dago; baldintzatu egiten dutela, ordea, aski nabarmena da. Era berean, jendaurrean auzi baten inguruan burutzen diren ekimenek (agerpenak, adierazpenak, erakustaldiak, ekitaldiak, manifestaldiak, e.a.) hedabideek eraikitzen duten irudian duten presentzia, faktore askoren arabera da (hedabidearen izaera, jendaurreko agerpenaren izaera, auzian dagoen gaiaren izaera, e.a.), baina eragina izan dezaketela argi dago. Azkenik, gizabanakoek iritzietatik batzuek jendaurreko agerpen handiagoa eta beste batzuek txikiagoa izatea, gizarteko dinamikaren ondorioa da; hor garrantzi handia dauka ekimen politikoak, baina baita "iritzi publikoaz" nagusitzen den irudiak ere.